

«JAIZKIBEL MENDIA SUTAN»

1 Mila bederatzirehun
larogei ta hamarra
1 iritsi zinan nahiko
zital ta zakarra,
euskal mendi gehienak
sua eta garra,
makina bat lekutan
jarri du negarra,
guretzat ere bada
nahiko zoritxarra.

2 Bere babes goxoan
dago gure herria
2 nola kaleak eta
hala baserria.
Zer toki atsegina
ta zoragarria
nori etzaio busti
malkoaz begia
erretzen ikustean
Jaizkibel mendia.

3 Zu zinan gure jardin
ta paradisia
3 zugar arkitzen gendun
kerizpe goxua.
Arnas berritutzeko
toki erosua
bainan aspaldi hontan
sarri erasua,
batetik militarrek
bestetikan sua.

4 Lehen polita zinana
gaur zaude itsusi,
4 inbiri txarra jarri
dalako nagusi.
Jaizkibel etzenduen
zuk hori merezi,
nahiz zure magalean
urte askoz bizi,
horren goibel ez nizun
sekulan ikusi.

5 Nahi badira su garrak
betiko itzali
5 eta lehengo itxura
eman Jaizkibeli,
badakigu zer egin
ta nola ibili
lehenengo militarrek
hortikan biali
ta ondoren gaztain, haritz,
ta pagoz estali.

6 Entzungo al didate
gaur agintariak?
6 ta bete ditzatela
nere eskariak,
zuloak egin, jarri
landare berriak,
lehengo itzala izan
dezaten mendiak,
horrenbeste merezi
du Euskal Herriak.

— MARTZELINO LEGORBURU —
«Argiñane»